



ELENA MARTINEZ RUBIO

**EGUN
GORRIETAN**

SIGI-SAGAKO GOGOETAK

ALBERDANIA





ELENA MARTINEZ RUBIO

**EGUN
GORRIETAN**

SIGI-SAGAKO GOGOETAK

ALBERDANIA



EGUN GORRIETAN

*Bitartean ibillico dira becatutic becatura amilduaz;
orain pentsamentu batean, guero seago itz loyak gozotero aditzean:
orain escuca, edo queñada batean, guero musu edo laztanetan:
orain ipui ciquiñac contatzen, guero dantzari,
edo dantza ondoan alberdarian.*

J.B. AGIRRE

1. argitaraldia: 2021eko ekaina.

*Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza
izan du liburu honek.*

© 2021, Elena Martinez Rubio

© Argitaraldi honena: 2021, **ALBERDANIA, SL**

Istillaga, 2, behe C - 20304 Irun

Tel.: + 34 943 63 28 14

alberdania@alberdania.net

www.alberdania.net

Azala: Nietzschek 1881-88ko udak pasatu zituen herriko paisaia (Sils-Maria, Segl retorromanikoz. Elena Martinez Rubioren argazkia).

Inprimatzaila: Ulzama (Huarte, Nafarroa)

ISBN digitala: 978-84-9868-670-8

ISBN papera: 978-84-9868-669-2

Legezko gordailua: D-658/2021



EGUN GORRIETAN

Sigi-sagako gogoetak

ELENA MARTINEZ RUBIO

ALBERDANIA

saiakera

DEABRU GUREA

HERBEHEREETAKO HERRITARREK *Laurogei Urteko Guda* (1568-1648) deitzen diote Espainiako legetik askatzeko egin zuten ibilbide luze latzari. Herbehereetan oraindik ospatzen dute espainiar harroxkoak gainetik kendu izana. 80 urte: zortzi zenbakiak biribiltasuna adierazten du, infinitua edota gurpil zoroaren ikurra ere izanik, besteak beste. Bere isatsari hozka egiten dion suge baten bidez irudikatzen da maiz. Hein batean, halaxe gertatu zen: zenbat eta ankerrago jokatu espainiarrek, hainbat eta ugariagoak etsaiak. Eta herriak ere, zenbat eta gutxiago galtzeko izan, hainbat eta irmoago erantzun zuen. Etengabeko soka. Era berean, nederlandarrei amaigabeak egingo zitzaizkien laurogei urte haiek.

Gerrari bidea eman zioten tirabirak lehendik zetozen. Espainiarrek inoiz ez dute izan beste herrien sinesmenak eta ikuspegiak aintzat hartzeko joera. Adibidez, gerra piztu baino lehen Felipe II.ak Inkisizioa erabili zuen Herbehereetako protestanteen kontra, hauek gero eta ugariagoak zirelako. Izan ere, protestantismoaren oinarrian Eliza Katolikoaren ustelkeria eta hierarkia salatzen zuten herritarren gogoak zegoen.

Bestalde, 1565ean nederlandar 400 bat noble kalbinistak *Compromis des Nobles* hitzarmena sinatu zuten, non Inkisizioaren desagertzea eskatu baitzuten, bai eta heretikoen kontrako jazarkundeari amaiera ematea ere. 1566an, aipatu hitzarmena izenpetu zutenek Parmako Margaritarengana jo zuten. Parmako Margarita Herbehereetako gobernaria zen Bruselan orduan, Felipe II.ak izendatua. Noble haiek eskutitz bat eman zioten, lege berriak egin zitezen erlijio-gatazkari konponbidea eta autonomia politiko handiagoa eskatzeko. Topaketa horren ondoren, Parmako Margarita Estatu-Kontseiluko kideekin bildurik zegoelarik, Charles de Berlaymontek, –espainiar erregearen aldeko herbeheretarra berau–, erdeinu osoz esan omen zuen herbeheretar noble haiek eskaleak baino ez zirela. Frantsesez, *gueux*. Handik aurrera, independentziaren aldeko matxinoek «eskale» hitza bere egin eta *Geuzen* –«eskeko»– izena eman zioten beren buruari.

Albako Dukea, *–Burdinazko Dukea* goitizenez–, berriz, bere doilorkeriagatik egin zen ezagun. Behin eta berriro hautsi zituen orduko markak bortizkeriaren eta odolzalekeriaren alorrean. Bere soldaduekin sartzen zen herri eta hirietako biztanle guztiak zigortu eta hil ohi zituen, gupidarik gabe. Hain zen arbuigarria Albako Dukea, non jendeak *Aita gurea* haren neurrira *egokitu* baitzuen 1572an:

*Deabru gurea / Bruselan zaudena /
madarikatu izan bedi / zure izen gorrotagarria /
urrutira bedi zure erreinua / etor bedi zure hondamena /
ez bedi egin zure nahia / ez lurrean ez zeruan sekula /
ogia kentzen diguzu egunoro / gose dira herritar oro /
ez baitzara inoren erruki / guk ez dizugu begirunerik /
eramanen gaituzu tentaldira / zure sumina jasaten dugun artean /
Jainkoa otoi begira gaitzazu / deabru horren gaiztakeriatik
baita haren Batzorde / odolzale gezurtitik
eta bidal itzazu espainiar gerlariak / Satanen eskura infernura.
Amen.*

Otoitz berezi samar horretan agertzen den «Batzordea» Espainiako Erregeak Herbehereetan ezarritako auzitegi berezi bat izan zen. Herriaren ahotan: *Blutrad* (Odolaren Batzarra), besterik gabe; Espainiako Historian, oster, *Tribunal de los Tumultos* (Iskanbiletako Auzitegia) deitutakoa. Epaitegi hartako epaileek milatik gora lagun kondenatu eta hilarazi zituzten.

Espainiar soldatuen harrapakariak eta gehiegikeriak izugarriak izaten ziren. Une batean, hain egoera korapilatsuan zeuden espainiarrak, non Albako Dukeak berak eskatu zion Felipe II.ari gobernari-kargutik kendu zezan. Espainiarren dena txikitzeko jokabidea Antwerpen hiriko gertakariak erakutsi zuten 1776an. Bertakoek *Spaanse Furie* (*Furia* espainiarra) deitu zioten espainiarrek eragindako sarraski gorriari, Antzinako mendekuaren jainkosez oroiturik. Edonola ere, Antwerpen hiriaren suntsitzeak eta biztanlegoaren herenaren hiltzeak are eta gaitzespen gehiago ekarri zizkien espainiarrei, baita katolikoen aldetik ere.

1581. urterako, aldiz, Ipar Herbehereetako zazpi eskualdeek independentzia aldarrikatzea lortu zuten. Herrialde hura errepublika bihurtu zen Orangeko Gillermoren gidaritzapean. Berehala, Espainiako Erregeak dirutza eskaini zuen Orangeko Guillermo hiltzeagatik. Hala, Juan de Jauregui bilbotar katoliko

fededun sutsuak –atentatuaren egunean Arantzatzuko eta Begoñako amaren kuttunak zeramatzan aldean– Orangeko Guillermoarengana hurbildu eta tiro egin zion gertu-gertutik. Alabaina, handik bizirik irten zen Orangeko Guillermo. Handik bi urtera, ordea, beste katoliko peto batek eman zion heriotza Orangeko Guillermo Herbehereetako Estatuaren aitzindariari.

Bien bitartean, herriaren ahaleginek Espainiako mendekotasunetik askatzeko aurrera egin zuten, helburua bete arte. Horrexegatik, herbeheretarrek mirespen handia sortu zuten beren garaikideengan nahiz ondorengoengan. Friedrich Schiller idazleak, esaterako, historia-liburu bikain bat argitaratu zuen 1788an espainiar eta herbeheretarren arteko gatazkari buruz.¹ Schillerren ustez, nederlandarrak ez ziren batere ekintza heroikoetara emanak; aitzitik, bakezaleak ziren, izatez. Halere, berebiziko gaitasuna garatu zuten tirania garaitu ahal izateko, beren eskubide preziatuenen alde ari zirelako, hain zuzen. Schillerren iritziz, herbeheretarrek berak ere harritu egin ziren beren ausardiaz jabetu zirenean.

Horrezaz gain, drama arrakastatsu bat idatzi zuen Schillerrek, herbeheretarren borroka testuinguru duena: *Dom Karlos*. Jakina, *Dom Karlos* luzaro egon zen Espainian bazterreratua. Bada, hamaika oztopo eta eragozpen agertu ziren Schillerren askatasunaren aldeko antzerki-lana gaztelerara itzultzeko orduan.²

Hein handi batean, munduan zehar zabalduriko *Elezahar Beltza* Herbehereetako gerra-garai horri zor zaio. Geroztik, ordea, Espainia ahalmenik gabe geratu zen bere indarkeria urrutira eramateko eta europar periferian kokatzen hasi zen. Hau da, Penintsulatik kanpoko hainbat tokitan lasaialdia hartzeko aukera izan zuten bitartean, Penintsularen barruan tinko eta luze iraun zuen *Elezahar beltzaren* eraginak. Portugal garaiz libratu zen, baina beste askok oraino nozitzen dugu.

¹ Friedrich Schillerrek 1788an argitaratu zuen bere saiakeraren lehen atala Espainiaren eta Herbeheren arteko borrokari buruz, Jena hirian Filosofia katedraduna zela: *Geschichte des Abfalls der Vereinigten Niederlande* (gazteleraz, *Historia de la separación de las Provincias Unidas de los Países Bajos del gobierno español*). Gogoeta filosofikoek eta historikoek osatutako lana da.

² *Dom Karlos, Infant von Spanien* (Don Carlos, Infante de España), 1783. eta 1787. urteen artean idatzitako drama, bost ekitaldi dituen. Gaztelerara egindako itzulpenez, ikus: Ana Isabel Ballesteros Doradoren artikulua *Cuando la traducción está prohibida: Don Carlos de Schiller en la España decimonónica*. *Revista de Historia de la Traducción*. 6 zenbakia (2011).